EKAITZAK ARAZO UGARI SORTU ETA ARGINDARRIK GABE UTZI ZITUEN EUSKAL HERRI OSOKO HERRI ASKO

# Haize erauntsien ondorioz hiru lagun hil eta hainbat zauritu dira Euskal Herrian

- Haize erauntsiak orduko 160 kilometroko abiadurara ere heldu ziren zenbait unetan arratsaldeko azken orduetan
- Ipar Euskal Herriko etxeen % 60 telefono, telebista eta irratirik gabe gelditu ziren, Larrungo horritzailea hondatu zelako
- Noain, Sondika eta Hondarribiko aireportuak itxi egin ziren, eta trenbide eta errepide ugari moztu zituzten enbor eroriek


LUIS TEJIDO / EFE
Garabi handi batek automobil bat erdiz erdi harrapatu zuen Bilboko hiriguneanm.

G.A. - I.P. - I.E. - M.I - L.K.G.
Bilbo-Donostia-Baiona-Iruñea-Gasteiz

HAIZE erauntsi indartsuek arazo handiak sortu zituzten atzo Euskal Herrian. Istripurik larrienak Bizkaian gertatu ziren: Bilbon bi lagun hil ziren garabi bat gainera erorita, eta Barakaldon beste pertsona batek galdu zuen bizia, eraikuntza lanetako etxola bat jausi zitzaionean. Lasarte-Orian, pertsona bat larri zauritu zen aldamio bat gainera erorita. Gainerakoan, haize ekaitzak zauritu ugari eragin zituen Euskal Herri osoan.

Gainera, orduko 160 kilometroko abiadurara heldu ziren haizeteegatik erorritako arbolek kalte ugari eragin zituen argindar sarean eta, ondorioz, Euskal Herri osoko herri ugari argindarrik gabe egon ziren atzo iluntzean eta gauean. Sondika, Hondarribia eta Noaingo aireportuak itxi egin zituzten, trenbide zenbait ere moztuta egon ziren arbolak eta adarrak erori zirelako, eta errepide askotan ere arazoak izan ziren.

### Bizkaian, hiru hildako

Eguneko lehen istripu larria Bilboko Amezola plazan jazo zen, arratsaldeko zazpiak hamar gutxian: haize erauntsi gogor batek garabi bat bota eta azpian 17 urte inguruko bi gazte harrapatu zituen. Ordu erdi geroago, Barakaldoko Ansio plazan, Metroaren eraikuntza lanetarako kaseta batek jo zuen pertsona bat zazpiak eta hogeian. Biktima berehala hil zen, kolpearen ondorioz.

Bilbotik Bermeora zihoan bidaiari trenaren gainera ere arbola bat erori zen, Zornotza eta Zugaztieta artean. Ezbeharrak zauriturik ez zuen eragin hala ere, baina trenbidea moztuta geratu zen aldi baterako.

Bizkaian, besteak beste, argirik gabe egon ziren Mungialdea eta Busturialdea eskualdeak, Gatika, Lemoa, Arratia, Bermeo eta Errigoitia herriak. Basauri, Igorre, Galdakao edo Bilbon argi indarra aldiro joan egiten zen.

Bizkaiko bajurako flotak portuan lotuta segitzen zuen atzo, baina egoera oso kezkagarria zen bart gauez. Eguraldi eta itsaso sakarra medio Bermeo, Ondarru, Lekeitio edo Elantxobeko bajurako ontziak ez ziren itsasoratu, baina Ondarruko alturako ontziak itsasoan ziren, Gabonetarako itsaskiak arrantzatzen.

Bermeoko portuaren egoera «beldurgarria» zela adierazi zioten EGUNKARIA-ri Bermeotik: buiarren bat askatuko ote zen beldurrez ziren arrantzaleak, ilunpe osoa eta olatu handiak zirela-eta ezinezkoa baitzuten ontziak hobeto lotzera sartzerik.

Algortako Ereaga hondartzaren parean, Maltako bandera duen Tilos merkataluntzi batek hondoa jo eta ez atzera ez aurrera geratu zen.

Bizkaiko suhiltzaileek, bestalde, irteera ugari egin behar izan zituzten, arbolak, Gabonetako apaingarriak edota zabor kontenedoreak espaloi eta errepideetatik baztertzeko.

### Gipuzkoan, zauritu ugari

Gipuzkoan gutxienez 45 pertsona artatu behar izan zituzten Gurutze Gorriko eta DYAko postuetan, zauri arinen ondorioz gehienak. Haizeak eragindako ezbeharrik larriena Lasarte-Orian gertatu zen, arratsaldeko 18:00ak aldera. Herriko Geltoki kalean egiten ari diren etxebizitza baten aldamioa erori egin zen, eta handik pasatzen ari zen gizon bat bete-betean harrapatu zuen. Herrizaingo

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

## Arazo handiak aireportuetan

AZPIEGITURA guztietan eragin larria izan zuen haize ekaitzak atzo arratsaldean, eta berezki nabarmena izan zen aireportuen funtzionamenduan.

Funtzionatzeko arazoak izan zituzten Euskal Herriko bost aireportutan. Hegoaldeko laurak itxita egin ziren arratsaldean.

Noaingoan hegaldiak bertan behera utzi behar izan zituzten, haize boladak eta euria zirela-eta. Sondika eta Hondarribiko aireportuak ere itxi behar izan zituzten erabat arratsaldean, eta Miarritzeko aireportua erabat itxi ez zuten arren, hango zerbitzuetako langile batek EGUNKARIAri erran zionez, hegazkin bat ere ez zen ez sartu eta ez irten atzo haize ekaitzaren ondorioz.

Hegaldiak normaltasunez bete ahal izan zuen aireportu bakarra Forondakoa izan zen. Izan ere, aurreikusita zituzten zerbitzu guztiak bete ahal izan zituzten Gasteizko aireportuan, haize bortitza izan arren.